**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2019ko URRIAK 8 / 8 - OCTUBRE - 2019**

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2019/10/08

**HASIERA / INICIO:** 18:00etan

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EH BILDU-DURANGO):**
Alkatea, Doña Ima Garrastatxu Urbaneja

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**
**(EH BILDU-DURANGO):**
2. Alkateordea, Don Iker Urkiza Quilez jauna
3. Alkateordea, Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Doña Ane Abanzabalegi Areitio andrea
Doña Mariam Bilbatua Perez andrea
Don Juan Antonio Bueno Moreno jauna
Doña Garazi Errasti Silloniz andrea

**HERRIAREN ESKUBIDEA/ELKARREKIN PODEMOS/INDEPENDIENTEAK (HE/EP/I)**
1. Alkateordea, Don Julian Rios Santiago jauna
Doña Neskutz Rodríguez Ormazabal andrea
Don Jorge Varela Dorrio jaunak
Doña María Oñate Ereñaga andrea

**EUSKO ALDERDI JELTZALEA/PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ/PNV)**
Doña Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea
Doña Sara Oceja Salazar andrea
Don Ager Sardui Azkoaga jauna
Doña Josune Escota Bisbal andrea
Don Jon Sergio Atxotegi jauna
Doña Joana de Irala Bizkarra andrea
Doña Malen Urkullu Arieta-Araunabeña andrea
Doña Ainhoa Ortueta Etxebarria andrea

**EUSKAL SOZIALISTAK/SOCIALISTAS VASCOS**
Doña Jesica Ruiz Pérez andrea
Don Fernando Castillo Rodríguez jauna

**KONTU-HARTZAILE / INTERVENTOR**
Don Jokin Palacio Perez jauna

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 18:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 18:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- DEIALDI HONEN PREMIAREN BERRESPENA.**

* Alkatea **Garrastatxu Urbaneja andreak (EH Bildu-Durango)**: Premiaren berrespena bozkatu behar dugu lehenengo.

Ahobatez onartzen da.

**UNO.- RATIFICACIÓN DE LA URGENCIA DE LA PRESENTE CONVOCATORIA.**

* Alcalde **Sra. Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango)**: Primero tenemos que votar la urgencia de la presente convocatoria.

Se aprueba por unanimidad.

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

* Kontu-Hartzaile **Palacio Perez jaunak**: Osoko bilkurara ekarri dugu 2018ko ekitaldiko kreditu-aldaketen berri emateko txostena, hain zuzen ere, diruzaintzako soberakinarekin finantzatu direnez, Durangoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-egonkortasuna eta/edo finantza-jasangarritasuna arriskuan jar lezaketenak.

Atzo Bozeramaileen Batzordean azaldutako moduan, txostenean azalduta dago ez nuela nik aukerarik izan hau nondik datorren azaltzeko, baina nahiko argia da.

2019ko urtarrilaren 24an hasi nintzen Durangoko Udalean kontu-hartzaile gisa lanean, aurrekontuaren likidezia egin zen martxoaren 29an Alkatetzaren dekretu bidez onartu ondoren, aurrekontu-egonkortasunaren araua betetzeko formularioa prestatu zen, gastuaren eta zorpetzearen araua betetzekoa, nahitaez Bizkaiko Foru Aldundira bidali beharrekoa.

Hala, informazioa igortzeko ditugun betebeharrak bete genituen eta 2019ko irailaren 11n jakinarazi ziguten foru-aldunditik formularioari zenbait doitze egin zizkiotela. Horien artean garrantzitsuena Udalean nahiz erakunde autonomoetan diruzain-

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Interventor **Sr. Palacio Perez**: Se traslada al pleno el informe de dación de cuenta de las modificaciones de crédito del ejercicio 2018 que, habiéndose financiado con remanente de tesorería, pudieran comprometer la estabilidad presupuestaria y/o sostenibilidad financiera del Ayuntamiento de Durango y sus Organismos Autónomos.

Tal y como se os trasladó en Junta de Portavoces ayer, en el informe queda explicado que yo no tuve oportunidad de explicaros de dónde viene esto, pero es bastante claro.

Yo me incorporo como Interventor al Ayuntamiento de Durango el 24 de enero de 2019, se confecciona la liquidación del presupuesto y, una vez que se ha aprobado el 29 de marzo por Decreto de Alcaldía, se confecciona el formulario de cumplimiento de la regla de estabilidad presupuestaria, regla de gasto y endeudamiento, que es preceptivo remitir a la Diputación Foral de Bizkaia.

De esta forma, cumplimos las obligaciones en materia de remisión de información y es el 11 de septiembre de 2019 cuando se nos comunican desde la Diputación una serie de ajustes sobre dicho formulario. Entre ellos, el más relevante es uno que viene a eliminar, tal y como nos indican, tanto en el

tzako soberakinarekin gastu orokorretarako finantzatutako gastuen doitzea ezabatuko duena da, ez baitzen eman aldaketen berri 5/2013 Foru Arauaren 6.5 artikuluaren arabera.

Horrek gastuari dagokion araua ez betetzea dakar eta Foru Aldunditik esan digute onartuko digutela orain 2018ko ekitaldiko aldaketa guztiei buruzko jasangarritasun-txosten bat aurkeztea.

5/2013 Foru Arau horren 6.5 artikuluak ezarria duen moduan, Udalak kreditu-aldaketak diruzaintzako soberakinekin egiten dituenean, aldaketa horien berri eman behar die Foru Aldundiari. Era berean, artikulu horrek dio aldaketaren espedienteaz gain, kreditu-aldaketa horien berri eman zeneko osoko bilkurako akta ere bidali behar dela.

Izan ere, Foru Arauaren bidez salbuetsi egiten dira mota horretako kreditu-aldaketak egiten dituzten udalak plan ekonomiko-finantzarioa egitetik. Estatuan bai, plan hori egiteko betebeharra izango lukete eta plan horren ordez, nahikoa dugu kontu-hartzaileak egin beharreko egonkortasun-txostena aurkeztea.

Bizkaiko Foru Aldundira igortzeko dokumentazioa prestatu dugu, baina era berean, jabetu gara osoko bilkuran ere kreditu-aldaketen berri eman gabe zegoela eta beraz, ez dugu honela, premiaz, ekartzea beste aukerarik izan, aldaketen berri emateko, ez baitago erabakirik hartu beharrik eta horrexegatik sar daiteke gai-zerrendan ere.

Hori azaldu ondoren, osoko bilkurara ekarri dira Durango Udalak eta haren erakunde autonomoek 2018ko ekitaldian diruzaintzako soberakinarekin finantzatu dituen kreditu-aldaketak. Aldaketa bakoitza bere garaian eginiko jasangarritasun-txostenarekin eta sinatuta aurkeztu dugu, besterik gabe, horien berri emateko, eta hemendik aterako den osoko bilkuraren akta Bizkaiko Foru Aldundiari igorri ahal izateko, eta hala, Bizkaiko tokiko erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko 2013ko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauan ezarritakoa betetzeko.

Ayuntamiento como en los Organismos Autónomos, el ajuste de gastos financiados con remanente de tesorería para gastos generales, ya que no se tomó dación de las modificaciones de acuerdo con el artículo 6.5 de la Norma Foral 5/2013.

Esto provoca el incumplimiento de la regla de gasto y la Diputación nos dice que admiten la presentación ahora de un informe de sostenibilidad referida a todas las modificaciones del ejercicio 2018.

Tal y como establece el artículo 6.5 de esa Norma Foral 5/2013, cuando el Ayuntamiento lleva a cabo modificaciones de crédito financiadas con remanente de tesorería tiene que comunicar esas modificaciones a la Diputación. De la misma forma, también indica el artículo que hay que remitir, aparte del expediente de la modificación, el acta del pleno en el que se den cuenta estas modificaciones de crédito.

Esto viene derivado de que a través de la Norma Foral se exime a los ayuntamientos que hacen este tipo de modificaciones de crédito de hacer un plan económico-financiero, cosa que en el estado sí que tendrían obligación, y ese plan se sustituye por un informe de estabilidad que elabora el interventor.

Se prepara la documentación para remitir a la Diputación Foral de Bizkaia, pero a la vez constatamos que tampoco se había dado cuenta en pleno de esas modificaciones de crédito, por lo cual no nos quedaba otra opción que traerlo de esta manera, tal vez un poco urgente, a efectos de dación de cuenta porque no supone ningún tipo de acuerdo y por eso también encaja en la inclusión del orden del día.

Una vez explicado esto, se trasladan al pleno las modificaciones de crédito financiadas con remanente de tesorería llevadas a cabo tanto por el Ayuntamiento de Durango como por sus Organismos Autónomos a lo largo del ejercicio 2018. Cada una de ellas con los informes de sostenibilidad confeccionados y firmados en su momento a los solos efectos de dar cuenta de las mismas y poder trasladar el acta plenaria resultante a la Diputación Foral de Bizkaia, dando así cumplimiento a lo establecido en la Norma Foral 5/2013 de 12 de junio de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Bizkaia.

Eranskinean dago adierazita, guztira, 21 kreditu-aldaketa izan direla. Horietatik 10 Durangoko Udalari dagozkio, 2 Astarloa Kulturgintzari, 1 Bartolome Ertzillari, 7 Durango Kirolaki eta 1 Udal Euskaltegiari. Guztira, 7.850.536,09 euro dagozkie aldaketa horiei.

Eskuragarri dituzue espedienteak Kontu Hartzailetzan, norbait aztertu nahi balitu. Hala ere, jada itxita, likidatuta dagoen 2018ko ekitaldiko aldaketak dira eta Durangoko Udala egonkorra da, betetzen du aurrekontu-egonkortasuna, betetzen du gastuaren araua eta zorpetzearena ere bai.

UDALBATZA jakitu eta ados adierazten da.

En el anexo se indica que son un total de 21 modificaciones de crédito; 10 corresponden al Ayuntamiento de Durango, 2 a Astarloa Kulturgintza, 1 Bartolome Ertzilla, 7 a Durango Kirolak y 1 a Udal Euskaltegia. En total ascienden a 7.850.536,09 euros.

A vuestra disposición están los expedientes en Intervención, si alguien quisiera revisarlos. Pero es cierto que son modificaciones del ejercicio 2018, que está cerrado, liquidado y que el Ayuntamiento de Durango es estable, cumple estabilidad presupuestaria, cumple regla de gasto y cumple endeudamiento.

EL AYUNTAMIENTO PLENO se da por enterado.

**HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, 2020KO URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK HASIERA BATEAN ONARTZEA. (ANTOLAKETA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2019KO URRIAREN 3KOA)**

Antolaketa Batzordearen iragan urriaren 3an, irizpena egin zuen Tokiko Zergen Kudeaketaren gaineko espedienteari buruz eta Prezio Publikoen Diru-Bilketa eta Ikustatzearen gainean, betiere, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen 16 eta 17. Artikuluek ezartzen dutena aintzat hartuta eta, halaber, kontuan hartuta honako lege-testuek ezarritakoa: uztailaren 4ko, 5/89 Foru Arauaren 15. artikulua eta hurrengoak eta Toki Araubide Arautzen duten oinarrien Legearen 49. Artikulua, betiere, 2020. urterako ordenantza fiskalak aldatzeko.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* 2. Alkateordea <u>**Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu-Durango)**</u>: 2020rako Ordenantza Fiskalen proiektua ekarri dugu plenoan onartzeko. Horretarako saiatuko naiz azaltzen laburbilduz zeintzuk izango diren nobedadeak.

**TRES.- APROBACIÓN INICIAL, SI PROCEDE, DE LAS ORDENANZAS FISCALES Y PRECIOS PÚBLICOS PARA EL EJERCICIO 2020. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ORGANIZACIÓN DE 3 DE OCTUBRE DE 2019).**

Visto el dictamen elaborado el pasado día 3 de Octubre por la Comisión Informativa de Organización, respecto al expediente de Tributos Locales, su gestión, recaudación e inspección y Precios Públicos, a tenor de lo dispuesto en los Artºs. 16 y 17 de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, en concordancia con el Artº. 15 y ss. De la Norma Foral 5/89, de 4 de Julio, de Hacienda Forales y, conforme lo establece el Artº. 49 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, para la modificación de las Ordenanzas Fiscales de cara al ejercicio 2020.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* 2º Tnte. de Alcalde <u>**Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu-Durango)**</u>: Traemos al pleno el proyecto de las Ordenanzas Fiscales para el 2020, para su aprobación. Para ello, intentaré ofrecer una breve explicación sobre las novedades.

Zergekin hasteko EJZ, EIOZ eta BALIO GEHIKUNTZAREN zergetan %1eko igoera proposatzen dugu. OHZ eta TMIZ (ibilgailuen zerga), aldiz, izoztu egingo ditugu.

Para empezar con los impuestos, proponemos un incremento del 1 % en los impuestos IAE, ICIO e INCREMENTO DE VALOR. Los impuestos IBI e IVTM (Impuesto de Vehículos), sin embargo, quedarán congelados.

Tasen kasuan, %1eko igoera proposatzen dugu, baina ez guztietan. Adibidez, zaborren tasak ez ditugu igoko, TAO ere ez. Jaitsi egin dugu obra txikietarako baimenak emateko tasa, ostalaritzako terrazetan, 2020rako bakarrik, publikoa ez den kudeaketari dagozkionak; hau da, aurreko urteetako jardunbide desegokiengatik Udaletik egiten dugun gastu hori saihesteko, % 4ko beherapena proposatzen dugu aipatutako igoera saihesteko.

En el caso de las tasas, proponemos una subida de 1 %, pero no en todas. No incrementaremos las tasas de residuos ni la OTA. Hemos bajado la tasa de concesión de licencias en pequeñas obras, en las terrazas de hostelería solo para 2020, por una no gestión pública; es decir, para evitar ese coste que le supone que les hacemos desde el Ayuntamiento por esa mala praxis de años anteriores, proponemos un descuento del 4% para evitar esa subida.

Garajeetako ibi plaken kostu erreala ezarri dugu. 2006an erosi ziren, plaka bakoitzaren truke 84,64 euro ordainduta, eta 9,89 euro kobratzen ziren.

Hemos establecido el coste real de las placas de vado de los garajes. Se compraron en 2006 a 84,64 euros/placa y se venía cobrando 9,89 euros.

Kalean dauden bankuetako kutxazainen okupazio-tasa kalkulatu dugu, dagokiena kobratzeko.

Se ha calculado la tasa de ocupación para los cajeros bancarios a pie de calle, para cobrarles lo que corresponde.

Aldi berean, aztertzen ari gara tasen eta prezio publikoen estaldura maila, orain arte eguneratu barik daudelako. Honek tasa eta prezio publiko egokituak ekarriko dizkigu.

Al mismo tiempo, estamos analizando el nivel de cobertura de las tasas y de los precios públicos, ya que hasta ahora no han sido actualizados. Ese análisis traerá como resultado unas tasas y unos precios adaptados.

Horrez gain, hobarien taula berri bat proposatzen dugu, non mota guztietako familiak sartzen diren (ugariak, monoparentalak...), baina beti errentaren arabera. Behar dutenek edukiko dituzte hobariak.

Además, proponemos una nueva tabla de bonificaciones, donde se incluyen todos los tipos de familias (numerosas, monoparentales...), pero siempre según la renta. Las bonificaciones las recibirán quienes las necesiten.

Prezio publikoetan, Berdintasuneko kurtsoetako prezioak igo egin ditugu apur bat. Adibidez, orain arte egon diren prezioak hauek izan dira:

- 20 ordura arteko ikastaroan, ikasle bakoitzaren kostua 54 eurokoa zen, prezio publikoa 7 eurokoa zen eta estaldura-tasa, berriz, % 12,96koa. Orain prezio publikoa 10 eurora igotzea proposatzen dugu, hala, estaldura-tasa % 18,51koa izango da.
- 21-40 orduko ikastaroek 140 euroko kostua dute ikasleko. 12 euroko prezio publikoa ko-

En los precios públicos, hemos subido ligeramente los precios de los cursos de Igualdad. Por ejemplo, estos son los precios que hemos tenido hasta ahora:

- Curso hasta 20 horas, coste por alumna era de 54 euros, el precio público era de 7 y tenía una tasa de cobertura de un 12,96%. Ahora se propone subir a 10 euros el precio público, lo que supondría una tasa de cobertura de un 18,51%.
- Los cursos de 21 a 40 horas tienen un coste por alumna de 140 euros. Se cobraba un

bratzen zen eta estaldura-tasa % 8,57koa zen. Hemendik aurrera, 16 euro kobratuko dira eta estaldura-tasa % 11,42koa izango da.

- Eta 41 ordu baino gehiagoko ikastaroetan, ikasleko kostua 267 eurokoa zen, prezio publikoa 22 eurokoa zen eta estaldura-tasa % 8,24koa. Hemendik aurrera, 30 euro kobratuko dira eta estaldura-tasa % 11,23koa izango da.

Izotz pistako sarrerak ere garestitu ditugu; euro 1 gehiago kostako zaie 14 urte baino gutxiago dutenei; eta 2 euro gehiago 14 baino gehiago dutenei. Eta 10 euro/astea uda kanpamentuetan.

Gizarte ekintzan, Turismon, Musika Eskolan eta Astarloa Kulturgintzan ez dugu ezer igo. Aldiz, Durango Kirolak-en %5eko igoera proposatzen dugu. Esan dugun bezala, estaldura mailak aztertzen ari gara, baina orain arte koste zuzenak kontuan hartu dira bakarrik eta jakingo duzuenez DK-ko koste ez zuzenak oso altuak dira. Horregatik, prezio publikoei aplikatu behar litzaizkiekeen zeharkako kostu horien portzentajea kalkulatzeko lanean ari gara, gisa honetarako erakunde publikoentzako egokia den estaldura-tasara iristeko asmoz. Aurreikuspenean % 5eko igoera proposatzen dugu. Pixkanakakoa izan daiteke, edo bestela zenbait urtetan segidan izoztu.

Prezioen eta jardueren eskaintza ere aztertu egin nahi dugu, berrantolatu eta tarifa sinpleagoak proposatu nahi ditugu, beste herri batzuetan egiten den bezala, bazkide irudia ezarriz.

Esaten ari nintzen moduan, prezio publikoen eta tasen estaldura-tasak aztertzen ari gara eta gardentasun-neurri gisa, aurten, gizarte-arloetako prezio publikoetan taula bat jarriko dugu zerbitzuaren kostua, prezio publikoa eta estaldura-tasa adierazteko. Pixkanaka, gainerako prezio publikoetara eta tasetara ere hedatuko dugu. Nabarmendu nahi dut, oraingoz, zuzeneko kostuak bakarrik hartu ditugula aintzat eta zeharkakoak kalkulatzen ari garela.

precio público de 12 euros y la tasa de cobertura era de un 8,57%. Se va a pasar a cobrar 16 euros, lo que supondrá una tasa de cobertura de un 11,42%.

- Y los cursos de más de 41 horas, el coste por alumna era de 267 euros, el precio público era de 22 euros y la tasa de cobertura de un 8,24% y se va a pasar a cobrar 30 euros, y pasará a tener una tasa de cobertura de 11,23%.

También hemos subido el precio de las entradas a la pista de hielo; costarán 1 euro más a los menores de 14 años; y 2 euros más a los mayores de 14 años. Y 10 euros/semana en los campamentos de verano.

En Acción Social, Turismo, Escuela de Música y Astarloa Kulturgintza no hemos subido ningún precio. Sin embargo, en Durango Kirolak, proponemos una subida del 5 %. Tal y como hemos mencionado, estamos revisando los niveles de cobertura, pero hasta ahora se han considerado, solamente, los costes directos y como sabrán, los costes no directos de DK son muy elevados. Por ello, estamos trabajando para calcular el porcentaje de esos costes indirectos que habría que aplicar a los precios públicos, con la intención de llegar a una tasa de cobertura acorde a este tipo de instituciones públicas. En previsión se propone una subida del 5% que podrá ser gradual, o podrá congelarse en sucesivos años.

También queremos hacer una revisión de la oferta de precios y actividades, reorganizar y proponer tarifas más sencillas, estableciendo la figura del soci@, como se hace en otros pueblos.

Como decía, se están estudiando las tasas de cobertura de los precios públicos y tasas, y como medida de transparencia, este año en los precios públicos de las áreas sociales irá una tabla con el coste del servicio, el precio público y la tasa de cobertura. Lo iremos ampliando al resto de precios públicos y tasas. Recalcar que de momento sólo se están teniendo en cuenta los costes directos, estamos calculando los indirectos.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu EAJ-ri eta ES-ri egindako lanagatik eta beraien proposamenengatik.

Lortu dugu akordio desberdinetara heltzea, beraien ekarpenak entzun ditugu, eztabaidatu egin ditugu eta, aldi berean, proposatu dizkiegu aldaketa batzuk, akordioetara heltzeko.

Beraz, lortu ditugu akordio batzuk. Hori esker EAJk aurkeztutako 15 emendakinetik 6 onartu ditugu, 4 ez eta 5 erretiratu egin dituzte.

ESk aurkeztutako 13 emendakinetatik 6 onartu ditugu, 3 ez, 4 erretiratu egin dituzte. Eskerrik asko guztioi.

* **Ruiz Perez andreak (ES-SV)**: Ondo azaldu duzuen moduan, igoera orokortua % 1ekoa da OHZn, ibilgailuenean eta hondakinen zergan izan ezik. Nabarmendu nahi nuke bitxia iruditzen zaigula hemengo alderdi batzuek, Podemosek adibidez, lehen beti aurkezten zituela osoko zuzenketak eta tasa eta zerga guztiak izoztea eskatzen zuela eta aurten, berriz, babestu egin dutela igoera. Guri arrazoizko igoera iruditzen zaigu, zentzuzko proposamenak egiteko gaude hemen.

13 zuzenketa aurkeztu ditugu guztira eta horietatik bost atzera bota ditugu, hiru onartu egin dira, hiru adostu egin dira eta beste bi hona ekarri ditugu gaur, osoko bilkura honetan defendatu eta bozkatzeko.

Aurkeztu ditugun zuzenketak, oro har, dendarientzako laguntzen eta banaketa bidezkoagoa eta sozialagoa egitearen ingurukoak dira.

Zuzenketak labur azaltzeko, bost atzera bota ditugu; horietatik hiru teknikoki bideraezinak zirelako bota ditugu atzera eta beste bi atzera bota ditugu, hondakinen gaian, guk proposamen bat egin genuelako, pentsatuta, kontratu berria abian zela-eta une hona zela igoera bat egiteko, baina aztertu egingo dira zuzeneko nahiz zeharkako kostuak eta datu hori eskuratzean, orduan ikusiko dugu zer behar dagoen. Bestalde, TAOri lotuta, esan diguzue, etorkizunean, TAOri buruzko eztabaida bat abiaraziko dela eta orduan izango dela gai hori eztabaidatzeko unea.

Para terminar, queremos dar las gracias al PNV y a SV por el trabajo y las propuestas que han realizado.

Hemos conseguido alcanzar varios acuerdos, hemos escuchado sus aportaciones, las hemos debatido y, al mismo tiempo, les hemos propuesto varias modificaciones para llegar a acuerdos.

Por lo tanto, hemos logrado varios acuerdos. Gracias a ello, hemos aprobado 6 de las 15 enmiendas presentadas por el PNV, hemos desestimado 4 y han retirado 5.

De las 13 enmiendas presentadas por SV, hemos aprobado 6, hemos desestimado 3 y han retirado 4. Muchas gracias a todos.

* Concejala **Sra. Ruiz Perez (ES-SV)**: Como bien han explicado, la subida generalizada es de un 1% excepto al IBI, los vehículos y las basuras. Destacar que nos parece curioso que aquí hay partidos, como Podemos, que anteriormente siempre presentaba enmiendas a la totalidad pidiendo la congelación de todas las tasas e impuestos y este año defienden esta subida. Nosotros creemos que es una subida razonable, estamos aquí para hacer propuestas sensatas.

Hemos presentado un total de 13 enmiendas, de las cuales cinco hemos retirado, tres se han aceptado, tres se han transaccionado y dos traemos hoy para votar y defender en este pleno.

Básicamente las enmiendas que hemos presentado son en relación a ayudas para los comercios y una distribución más justa y social.

Para hacer un breve resumen de las enmiendas, de las cinco que hemos retirado, lo hemos hecho porque técnicamente eran inviables y otras dos las hemos retirado, porque en el tema de basuras nosotros hicimos una propuesta que creíamos que, dado que ya está el nuevo contrato en funcionamiento, era buen momento para hacer un incremento, pero se van a estudiar tanto los costes directos como los indirectos y, una vez que sepamos ese dato entonces veremos la necesidad o no. Por otro lado, el tema de la OTA y se nos ha dicho que en un futuro se va a abrir un debate sobre la OTA y entonces será el momento para debatirlo.

Adostutako hiru zuzenketetatik bat PGL erabiltzen duten ibilgailuentzako hobariari buruzkoa da; bigarrena merkatarientzako laguntzei buruzkoa da, jarduera berrietarako eta obrak egiteko % 25eko hobaria ematekoa, eta hirugarrena kutxazain automatikoen okupazio-tasa handitzeari lotutakoa.

De las tres enmiendas transaccionadas, una es en relación a la bonificación a los vehículos que utilizan GLP; una segunda tiene que ver con ayudas al comercio, en la que se les bonificará con un 25% para nuevas actividades y obras, y la tercera consistía en aumentar la tasa de ocupación de los cajeros automáticos.

Onartu diren hiru zuzenketa ditugu, zerbitzuei buruzkoak. Ados gaude ordaintzen dena kostuaren oso azpitik dagoela esatearekin, baina ez zaigu onargarria iruditzen kasu batzuetan igoera % 75ekoa edo % 100ekoa izatea –hala proposatzen zen–, adibidez, izotz-pistan edo ahalduntze-eskoletan. Gu igoeren alde gaude, baina uste dugu igoerak pixkanaka egin behar direla eta ez kolpetik.

Tenemos tres enmiendas que han sido aprobadas; estas enmiendas son referentes a los servicios. Estamos de acuerdo en que lo que se paga está muy por debajo del coste, pero no vemos aceptable unas subidas en alguno de los casos del 75 o 100% como proponían, como puede ser en la pista de hielo o los cursos de empoderamiento. Nosotros apostamos por subidas, pero creemos que esas subidas tienen que realizarse de manera paulatina y no de golpe.

Azkenik, gaurko osoko bilkurara beste bi zuzenketa ekarri ditugu. Lehenengo zuzenketa merkataritzari buruzkoa da, obra publikoen ondorioak jasaten dituzten ostalaritzako saltokiei % 90eko hobaria ematean datza. Uste dut denok jabetzen garela zer egoeratan dauden saltoki txikiak gaur egun, zer zailtasun dituzten. Iruditzen zaigu badituztela nahiko oztopo lehendik ere eta ez geniekeela haiekin zerikusirik ez duen zerbaitekin oztopo bat gehiago jarri behar, eta uste dugu nolabaiteko ordaina eman behar diegula. Horregatik, gure zuzenketa izango litzateke obrek irauten duen bitartean % 95eko hobaria aplikatzea.

Por último, tenemos dos enmiendas que traemos hoy a este pleno. La primera de ellas es una enmienda referente al comercio que consiste en una bonificación del 90% para aquellos comercios hosteleros que se vean afectados por la ejecución de obras públicas; creo que todos somos conscientes de cómo está el pequeño comercio hoy en día, de las dificultades con las que se encuentran, que ya tienen bastantes obstáculos y nosotros poniéndoles una traba más con algo que es totalmente ajeno a ellos creemos que hay que compensárselo de alguna manera, por eso nuestra enmienda es bonificarles con el 95% durante la ejecución de las obras.

Bestalde, Organismo Publikoei buruzko beste zuzenketa bat ekarri dugu. Ez dugu ulertzen, nolatan Durango Kirolak ez gainerako organismo publikoetan eutsi egin zaien prezioei edo ez zaizkien igo, eta Durango Kirolaki % 5eko igoera orokorra ezarri zaion. Ez dugu aurkitu hori babestu ahal izateko inolako faktore sozialik eta uste dugu kirola, gazteen artean bezalaxe, gainerako adinetan ere sustatu egin behar dugula.

Por otro lado, una referente a los Organismos Públicos; nosotros no entendemos como el resto de organismos públicos mantienen o no se les incrementan los precios y Durango Kirolak tiene una subida general del 5%. No encontramos ningún factor social para poder defender eso, y creemos que tenemos que fomentar el deporte tanto en jóvenes como en todas las edades.

Kasu honetan, igoeraren eraginik handiena jasango dutenak jarduera askotarako bonuak dituzten gazteak eta udako igerilekuetako bonuak erabiltzen dituzten familiak dira. Uste dut denok dakigula Landakoko igerilekuak eta udakoak ere txiki gelditu zaizkigula eta gainera % 5eko igoera egiten badugu, egoera ez zaigu bidezkoa iruditzen.

En este caso los más afectados con esa subida van a ser los jóvenes que son los que tienen abonos multi-actividad y las familias que utilizan los bonos de las piscinas de verano. Creo que todos somos conscientes que tanto las piscinas de Landako como las de verano se nos quedan pequeñas a día de hoy, encima si les subimos un 5%, pues no lo vemos justo.

Ez diogu uko egiten igoera egiteari, baina iruditzen zaigu, erakunde autonomoetako % 5eko igoera hori oso-osorik Durango Kirolakeko erabiltzaileei egitea, baztertzailea dela. Gure ustez, bidezkoagoa izango litzateke igoera Durango Kirolaken eta Bartolomen Ertzillaren artean banatzea, bi horien artean, horiek eskaintzen baitituzte jarduera gehien, eta beraz, arrazoizkoena bi horietako bakoitzari % 2,5eko igoera aplikatzea iruditzen zaigu.

No nos negamos a una subida, pero entendemos que esa subida del 5% en los organismos autónomos la suma de los usuarios de Durango Kirolak es discriminatoria. Creemos que sería más equitativa distribuir dicha subida entre Durango Kirolak y Bartolome Ertzilla, hacerla entre ellos dos porque son los que tienen una mayor oferta de actividades y que cada uno de ellos asuma un 2,5% de esa subida.

* **Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV)**: Hasteko, esan nahi dut behar genukeena baino denbora gutxiago izan dugula emendakinak aztertzeko, seguruenik bai oposizioak eta baita Gobernu Taldeak ere, sakontasunez aztertu ahal izateko eta emendakin batzuk aurkezteko.

* Concejala **Sra. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)**: Para empezar, debo decir que hemos tenido menos tiempo de lo necesario para analizar las enmiendas profundamente y para presentar enmiendas, tanto por parte de la oposición, como por parte del Equipo de Gobierno.

Harriduraz ikusi ditugu egon diren aldaketak; aldaketa txikiak egon dira ordenantzetan, eta harrigarria da hainbeste eztabaida sortu dituen ordenantza hauek gero, gobernu aldaketa egon denean, aldaketa handirik ez proposatzea.

Hemos visto con asombro los cambios que se han realizado; ha habido pequeñas modificaciones en las ordenanzas y es asombroso que estas ordenanzas que han generado tanto debate no tengan modificaciones sustanciales cuando ha habido cambio de gobierno.

Gu ados gaude proposatzen den %1eko igoerarekin, baina badaude beste igoera batzuk ez daukatenak hainbesteko justifikaziorik, adibidez, Durango Kirolaken kasuan, denok ari gara esaten denok egin behar dugula bizitza osasungarriago bat eta horretarako ariketa fisikoa onuragarria dela, baina %5eko igoerak ez du laguntzen. Harrigarriena da Podemosek beti ezetza ematea igoera guztiei eta orain beraiek proposatzea.

Nosotros estamos de acuerdo con la subida del 1 % que se propone, pero existen otras subidas que no tienen tanta justificación; como por ejemplo la de Durango Kirolak. Estamos diciendo todos que debemos llevar todos una vida más saludable y que para ello, la actividad física es beneficios, pero la subida del 5 % no ayuda en ello. Lo más asombroso es que Podemos siempre diga que no a todas las subidas y que ahora la propongan ellos.

15 emendakin aurkeztu ditugu eta batzuk onartu egin dira. Guk aurkeztutako emendakinei esker hobekuntza batzuk sartzea lortu dugu. Hobekuntza horiek planteatu ditugu entzute aktiboaren ondorioz; hau da, aspaldian hasi ginen elkarteekin egoten eta ikusten zeintzuk ziren euren ardurak eta ardura horiek jaso egin ditugu. Adibidez, trakzio mekanikoen ibilgailuen zergari dagokionez %40ko hobaria lortu da lau urtez, osotasunean edo partzialki erregai modura gas naturala, petroliozko gas likidotua, hidrogenoa edo bioetanola erabiltzen duten ibilgailuetako titularrentzat.

Hemos presentado 15 enmiendas y algunas se han aprobado. Gracias a las enmiendas presentadas por nosotros, hemos conseguido incorporar algunas mejoras. Hemos planteado dichas mejoras gracias a la escucha activa; es decir, empezamos hace mucho tiempo a reunirnos con las asociaciones y a analizar sus inquietudes, y hemos recogido dichas inquietudes. Por ejemplo, en lo que se refiere al impuesto sobre los vehículos de tracción mecánica, se ha conseguido para cuatro años una bonificación del 40 % para los titulares de los vehículos que utilizan como combustible, exclusivamente o parcialmente, gas natural, gas licuado del petróleo, hidrógeno o bioetanol.

Beti gabiltza esaten mugikortasun iraunkorra bultzatu behar dugula eta hau horretara doa. Kontran, harritu gaitu bizikleta moduko garraio-bide eraginkorrak sustatzen dituen garraio plan bat duten enpresei ez onartzea hobari bat.

Siempre estamos diciendo que debemos promover la movilidad sostenible y esta bonificación está planteada en esa dirección. Por el contrario, nos ha extrañado que no se les aplique una bonificación a las empresas que disponen de un plan de transporte que impulsa medios de transporte eficientes, por ejemplo la bicicleta.

Lortu dugun beste hobekuntza bat izan da %50eko hobaria 30 urte baino gehiagoko ibilgailuentzat; hau ere, Durangoko elkarte batek eskatuta izan da eta gehitu egin da %80ko hobaria 40 urte baino gehiago daukaten ibilgailuentzat, beti ere, Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailak historikotzat katalogatuta baldin badaude.

Otra de las mejoras que hemos logrado ha sido la de aplicar una bonificación del 50 % para los vehículos de más de 30 años de antigüedad; ha sido una bonificación solicitada por una asociación de Durango y se añadido una bonificación del 80 % para los vehículos de más de 40 años de antigüedad, siempre que estén catalogadas como históricas por el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco.

Beste alde batetik, eraikinen instalazioen eta obren gaineko zergan ere hobekuntzak lortu ditugu; bazegoen hobari bat baineraren ordez dutxa jartzeko eta hemen lortu duguna da 75 urtetatik 70 urtetara jaistea. Zabor-bilketaren tasari dagokionez, %50eko hobaria lortu dugu elikagaien saltokientzat, beti ere, bere fatxada nagusiaren aurrean eta zazpi metro baino gutxiagora hondakin organikoak biltzeko kontainer bat baldin badaukate.

Por otro lado, también hemos conseguido mejoras en el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras; existía una bonificación para la instalación de la ducha en sustitución de la bañera, y hemos logrado bajar el año de 75 a 70. En lo que se refiere a la tasa de recogida de residuos, hemos obtenido una bonificación del 50 % para los comercios de alimentos, siempre que dispongan de un contenedor de recogida de restos orgánicos delante de su fachada principal y cómo máximo a siete metros.

Hauek dira lortu ditugun hobekuntzak, baina denak ez dira onartu eta horiek azaltzeko Josune Eskota andreari pasatuko diot hitza.

Hemos conseguido esas mejoras, pero no se han aprobado todas, las cuales las explicará Josune Eskota. Le cedo la palabra.

* <u>**Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)**</u>: Osoko bilkurara ekarri ditugun zuzenketa batzuk ez dira onartu eta nabarmendu egin nahi dugu zergatik aurkeztu ditugun zuzenketak eta zergatik iruditzen zitzaigun garrantzitsua aintzat hartzea. Agian denbora-faltagatik, ezin izan ditugu behar bezala landu, baina gure taldeko kideok, hala ere, nabarmendu egin nahi ditugu.

* <u>**Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)**</u>: Hay una serie de enmiendas que nosotros hemos traído a pleno y que no han sido aceptadas y, en cualquiera de los casos, queremos destacar el porqué de la introducción de estas enmiendas y que consideramos que realmente era importante tenerlas en cuenta, si bien, quizás por falta de tiempo, no las hemos podido trabajar, pero desde nuestro Grupo político no queremos dejar de destacar.

Ordenantza garrantzitsuetako bat Ondasun Higiezinen Gaineko zergarena da, aurreko urteetan eztabaida handiak sorrarazi dituena. Guk ordenantzan sartzea nahi genuen Udal honek balio-txostenen zuzenketa modu aktiboan sustatzea. Alde teknikoari begiratuta, jakinarazi digute, foru-arauak ezarri zuela 2016an balio-txosten horrek nola zehazten duen Durangoko udalerriari dagozkion higiezinen balorazioa.

Una de las ordenanzas importantes es la del Impuesto de Bienes Inmuebles que ya en años anteriores ha sido de gran debate, y nosotros lo que queríamos que se introdujera en la ordenanza es que desde este Ayuntamiento se impulse activamente la corrección de la ponencia de valores. Es cierto que a nivel técnico se nos indica que la norma foral es la que vino a establecer en el año 2016 esta ponencia de valores cómo determinaba la valoración de los inmuebles que corresponden al municipio de Durango.

Foru Aldundiak ezarri zuen hori higiezinen katastroari buruzko foru-arau berriaren harira, baina hori Foru Aldiak ezarri arren, foru-arauak berak aitortu egiten du udal erakundeak parte aktiboa duela ezarritako balio horiek ez direla zuzenak erakusten duten inguruabarrak planteatzeko.

Ezin dugu ahaztu Durangori balio-txosten horren ondorioz gelditutako egoera. Eremu guztietako balioak aldatu ziren eta oraindik ez dakigu argi zer irizpide erabili ziren balio-txosten horietarako. Hala, eremu batzuetan eta besteetan lurzoruak duen balioa ez dago modu berdinean ezarrita eta horren ondorioz, zenbait tasa aplikatu behar izan ditugu eremu batzuetan izan diren zerga-jaitsierak eta besteetan izan diren zerga-igoerak konpentsatzeko.

Egia da tasa horien eraginez, diru-bilketari eutsi zaiola, baina dena ezarria dator, ez baitugu balorazioaren ezarpen zuzenik. Uste dugu ordenantza honetan zera txerta daitekeela, Udal-Gobernuak modu aktiboan sustatu behar duela katastro-balioen balorazio zuzena egitea, baita horretarako batzorde bat sortu behar bada ere, eta behin eta berriro esaten jarraitu behar dugu 2016tik oso egoera bidegabeak ditugula.

Adibidez, familia bakarreko eta biko etxeetan eta beste batzuetan, bi urterako akordio bat dugu, aldi baterakoa, eta akordio horrek arindu egiten du izan zuten igoera indiskriminatua, baina datorren urtean, berriro izango dugu mahai gainean tasa horrekin zer gertatuko den.

Bestalde, osoko bilkura honetan, etengabe ari gara udal-gobernuak gauza bat edo bestea egin dezan bultzatzen, bai merkataritza arloan, bai beste arlo batzuetan, baina zenbait lokaletan igoera neurrigabeak ditugu; adibidez, Ezkurdin, 2016an 437 euro ordaintzetik, 4.125 euro ordaintzera igaro dira lokal berdinagatik. Gauza bera Madalena inguruan; 2016an 882 euro eta hurrengo urteetan 2.334 euro; Plateruen plazan, 524 eurotik 2.336 eurora.

Esto nos vino determinado por la Diputación en virtud de la nueva norma foral, del catastro inmobiliario, pero también, si bien es cierto que eso lo determinó la Diputación, es verdad que la propia norma foral reconoce la parte activa por parte de la institución municipal para poder plantear circunstancias que pongan de manifiesto que estos valores que se han determinado no son los correctos.

No nos podemos olvidar que el panorama de Durango con esta ponencia de valores lo que hizo es que se cambiaron los valores de todas las zonas sin que tengamos todavía claro cuáles han sido los criterios utilizados para estas ponencias de valores; de tal forma, el valor del suelo en unas zonas y otras ha quedado determinado de forma desigual y eso nos ha llevado a que luego haya que aplicar una serie de tipos que vengan a compensar las bajadas que ha habido en algunas zonas y las subidas de impuesto que ha habido en otras.

Es cierto que estos tipos, lo que han hecho, es que se mantenga la recaudación, pero lo cierto es que todo ello viene determinado porque no tenemos una correcta determinación de esa valoración. Creemos que en esta ordenanza se puede introducir el que desde este Gobierno Municipal hay que impulsar activamente, incluso crear una comisión para poder llegar a una valoración correcta de los valores catastrales y no podemos dejar de seguir insistiendo que tenemos situaciones muy injustas desde el año 2016.

Por ejemplo, quiero destacar que es cierto que respecto a las viviendas unifamiliares, bifamiliares y demás, tenemos temporalmente un acuerdo por dos años en dónde ese acuerdo viene a paliar la subida indiscriminada que tuvieron, pero volveremos a tener encima de la mesa el año que viene qué va a pasar con ese tipo.

Por otro lado, en este pleno estamos constantemente con mociones para impulsar el gobierno municipal para determinadas cosas, en cuanto a comercio y demás, pero tenemos subidas desproporcionadas en determinados locales que quiero destacar: por ejemplo, en Ezkurdi, han pasado de pagar en el año 2016 437 euros a pagar 4.125 euros por el mismo local; lo mismo en la zona de Madalena, año 2016 882 euros y en los años posteriores 2.334 euros; en Plateruen plaza de 524 a 2.336.

Zenbateko horiek guztiak bere horretan uzten ari gara eta zenbait pertsonak, saltzaile txikiek, hartu behar izan dituzte haien gain igoera horiek. Ezin dugu hau honela utzi. Talde politiko guztiei dei egin nahi diet; izan ere, aurreko urteetan, nolabaiteko adostasun politikoa lortu dugu honetan eta hori da zuzenketa hau sustatzearen eta gai honetan lanean jarraitzearen arrazoia. Oraindik pentsatzen dugu ordenantzak konparaziozko bidegabekeriak dituela eta zenbait sektore babesgabe daudela.

Gainerako zuzenketei dagokienez, nabarmendu nahi dugu, garraio-plan bat egiten duten enpresei hobaria handitu ahal izateari balioa eman diogula guk, eta uste dut babesten ari garenarekin lotuta dagoela hori; airearen kalitatearekin, hain zuzen.

Azkenik, bainuontziak kentzeko lanei dagokien EIOZ zergaren kuotari begira, adina jaitsi egin da, baina ez zaigu egokia iruditzen egoera ekonomiko jakin bat baldintza izatea; izan ere, bizikidetza-unitateen osaera askotarikoa da. Egia da adineko bat diru-sarrerak dituzten seme-alabekin bizi daitekeela, baina obra horiek, berez, adinekoei zuzenduta daude, istripuak saihesteko eta haien bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Iruditzen zaigu, gutxi izan arren, ez dela egokia oso ezaugarri zehatzak dituen hobari bat baldintza ekonomiko batzuk dituztenengana mugatzea –gainera, baldintza horiek nahiko murritzak iruditzen zaizkigu– eta horregatik jarraitzen dugu gure zuzenketa planteatzen, bigarren zati hori ken dadila eskatzeko.

* <u>Varela Dorrio jaunak (HE-EP-I)</u>: Gobernu-Taldean erantzukizunez jokatu nahi izan dugu eta horregatik ekarri dugu orain onartuta dagoena baino bidezkoagoa eta zuzenagoa den ordenantza-proposamen bat. Eta horretarako, proposamen justifikatu bat aurkeztu diogu Udalbatzari eta aurreko urteetan ez bezala, udal-talde guztien proposamenak entzun, eztabaidatu eta txertatu ditugu.

Lan horren emaitza gisa, oposizioak aurkeztu dituen 18 zuzenketetatik, zenbait arrazoi direla-

Todos estos datos son cantidades que estamos dejando pasar y que supone que personas determinadas que son pequeños comerciantes se han quedado con esta subida. No podemos dejar que esto quede así. Yo emplazo a todos los Grupos políticos porque en años anteriores esto ha sido un punto donde ha habido un cierto consenso político y por eso es el motivo de impulsar esta enmienda y que se siga trabajando en este tema. Seguimos pensando que la ordenanza tiene agravios comparativos y hay una desprotección hacia determinados sectores.

Con relación al resto de enmiendas, queremos destacar el hecho de que nosotros hemos puesto en valor el poder aumentar la bonificación a aquellas empresas que establezcan un plan de transporte y creemos que va relacionado con eso que estamos defendiendo, que es la calidad del aire.

Por último, en relación a la cuota del ICIO para las obras que consistan en la sustitución de las bañeras, se ha rebajado la edad, pero nosotros no vemos adecuado que se condicione a una situación económica porque realmente las unidades convivenciales, a veces, están formadas de muy distintas maneras. Es cierto que una persona mayor puede estar viviendo con hijos que sí que tengan ingresos, pero, realmente, esta serie de obras están destinadas a personas mayores para que podamos evitar accidentes o mejorar su calidad de vida.

Creemos que, aunque sea poco, limitar una bonificación que tiene unas características muy determinadas a unas condiciones económicas que, además, nos parecen que son bastante reducidas, no lo vemos adecuado y por eso seguimos planteando la enmienda en la cual pedimos que se retire esa segunda parte.

* <u>Varela Dorrio jaunak (HE-EP-I)</u>: Desde el Equipo de Gobierno hemos querido hacer un ejercicio de responsabilidadd y traer una propuesta de ordenanzas más justa y equitativa que la que está aprobada. Y para ello, hemos realizado una propuesta justificada a la Corporación y, a diferencia de años anteriores, hemos escuchado, debatido e incluido propuestas de todos los Grupos municipales.

El resultado de este trabajo es que, de las 18 enmiendas que han presentado desde la oposi-

eta atzera bota dituzten 10ak aintzat hartu gabe, 12 onartu direla osorik edo akordio bat lortzeko negoziatuta, eta 6 bakarrik gelditu direla baztertuta iritzietan bat ez gatozelako. Horregatik, ordenantza hauek, azken urteetan izandakoen artetik bidezkoenak eta ordezkatzaileenak izango dira.

Zergak, tasak eta prezio publikoak arautuko dituzten aldaketa batzuk onartuko ditugu gaur.

- Hasteko, kostuei buruzko txosten bat lantzen hasiak gaude, hala, zerbitzuei esleitzen zaizkien prezioak datuetan oinarrituta egon daitezen.
- Txosten horietako bati lotuta, gaur esan dezakegu, eskatzen urteetan aritu ondoren, kutxazain automatikoak instalatzearen gaineko tasa igotzea onartuko dugula eta bankuek dagokiena ordainduko dutela.
- Aldaketak egin ditugu aurreko gobernu-taldeek sortutako egoerak arautzeko; adibidez, existitzen ez ziren prezio publikoak kobratzea.
- Hondakinen zerbitzua eta bide-garbiketaren zerbitzua erabat ezarri arte hondakinen tasa izoztea proposatu dugu.
- Ez dugu OHZ ere igoko, uste baitugu Bizkaiko Foru Aldundiak aldatu egin behar duela balio-txostena, higiezinen katastro-balioak adierazten dituen txostena, alegia.

Uste dut ez daukagula oso argi nork onartu zuen balio-txostena, zer alderdik onartu zuten balio-txostena Foru Aldundian, zer alderdik onartu zuten Durangoko Udalean, zer alderdik onartu zuten 0,355 etxebizitza areagotuarentzat, zer alderdik egin zioten lehen egunetik uko bizilagunekin adostutako proposamenak entzuteari, eta zer alderdik babestu zuen lehen egunetik orain egokitu beharrekotzat hartzen den hori, 0,29, nahiz eta orain, aldi baterako, 0,25ean egon. Bizilagunekin lortutako akordioa izan zen.

ción, ya quitadas las 10 que han retirado por diferentes motivos, se han aceptado íntegramente o negociado para llegar a un acuerdo 12, y sólo 6 han sido rechazadas por diferencias de opinión. Por eso, estas ordenanzas serán las más justas y representativas de los últimos años.

Aprobaremos hoy una serie de cambios que regularán los impuestos, tasas y precios públicos.

- En primer lugar, hemos comenzado a trabajar en un informe sobre los costes para que los precios que se atribuyan a los servicios estén basados en datos.
- De uno de estos informes podemos decir hoy que, tras años reclamándolo, aprobaremos una subida en la tasa por la instalación de cajeros automáticos, y los bancos contribuirán lo que deben.
- Hemos introducido cambios para regularizar situaciones que venían llevando a cabo Equipos de Gobierno anteriores, como el cobro de precios públicos que no existían.
- Proponemos congelar las tasas de basura hasta la total implantación del servicio de basuras y limpieza viaria.
- Tampoco subiremos el IBI, ya que creemos que la Diputación de Bizkaia debe modificar la ponencia de valores, que es el documento donde se recogen los valores catastrales de los inmuebles.

Creo que no tenemos muy claro quién aprobó la ponencia de valores, qué partidos aprobaron en Diputación la ponencia de valores, qué partidos la aprobaron en el Ayuntamiento de Durango, qué partidos aprobaron 0,355 para la vivienda incrementada, cuáles se negaron a escuchar desde el primer día las propuestas que traíamos consensuadas con los vecinos y qué partido, desde el primer día, defendió lo que hoy en día se considera que debe de ser adecuado, que es el 0,29 aunque actualmente y de forma transitoria estemos en el 0,25. Un acuerdo que se llegó con los vecinos.

- Horiez gain, hobari-taulak familietako pertsona kopuruaren eta diru-sarreren arabera aplikatzea proposatzen dugu.

  Azken urteetan babestu dugun moduan, zerbitzu publikoak egoera ekonomiko zailean dauden familiengana iristeko modu bidezkoagoa da.

- 75 urtetik 70era jaitsi dugu adinekoek bainuontziaren ordez dutxa jartzean (arriskuak murrizteko) hobariak lortu ahal izateko gutxieneko adina.

Eta lan horretatik guztitik, urriaren 3an Antolaketa Batzordearen saioan 4 udal-taldeetatik 3k aldeko irizpena eman zioten proposamena ekarri dugu. Udalbatzaren % 90etik gorako babesa eta aurkako botorik bat ere ez. Beraz, talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiet egindako lanagatik eta ekarpenengatik; baita erakutsiko jarrera onagatik ere.

* 2. Alkateordea **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu-Durango):** Denbora gutxi izan dugu, bai, guztiok, bai Gobernu Taldeak eta baita zuek ere. Datorren urterako denbora gehiago izango dugu honetarako eta aurrekontuetarako.

Aipatu duzue ez dagoela alderik gobernuen artean; tira, jada azaldu dudan moduan, hobarien taula bat jarriko dugu tasetan eta erakunde autonomoetan. Hobarien taula horretan aintzat hartuko dira familia motak eta errenta motak, gehien behar dutenei hobariak eskaintzeko.

Horrez gain, lehen aipatu dugun moduan, estaldura-tasaren gaia aztertzen ari gara, orain arte igoera orokortua zena, aurreko Gobernu-Taldeak hori planteatzen baitzuen, kafea denontzat. Iaz esan ziguten % 1 igoko zutela, Bilbon bezala, beste azalpen handirik eman gabe.

Guk ez dugu igoera orokortua egin; gauza batzuk % 1 igo dira, beste zerga, tasa eta prezio publiko batzuk izoztu egin ditugu, beste batzuk igo, adibidez, Durango Kirolak % 5 igo da eta beste kasu batzuetan, Berdintasuna eta Gazteria arloan

- Proponemos además la aplicación de tablas de bonificaciones por número de personas e ingresos de las familias.

  Como hemos defendido durante los últimos años, una forma más justa para que los servicios públicos lleguen a las familias que se encuentran en una situación económica complicada.

- Rebajamos también de 75 a 70 años la edad mínima para que las personas mayores tengan bonificaciones para cambiar la bañera por una ducha y reducir los riesgos en este colectivo.

Y de todo este trabajo, traemos una propuesta dictaminada favorablemente en la Comisión de Organización del pasado jueves 3 de octubre, por 3 de los 4 Grupos municipales. Un apoyo de más del 90% de la Corporación y ningún voto en contra. Por lo que solamente me queda agradecer a todos los grupos su trabajo y aportaciones, así como la buena disposición mostrada.

* 2º Tnte. de Alcalde **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu-Durango):** Es verdad que hemos tenido poco tiempo todos, tanto como el Equipo de Gobierno, como ustedes. El año que viene dispondremos de más tiempo para este tema y para los presupuestos.

Comentabais que no hay diferencia entre los gobiernos; bueno, como ya he explicado se introduce una tabla de bonificaciones en las tasas y en los diferentes organismos autónomos. Una tasa de bonificaciones en la que se tiene en cuenta los diferentes tipos de familia y los diferentes tipos de renta para bonificar a esas personas que más lo necesitan.

Asimismo, como hemos comentado, estamos estudiando el tema de la tasa de cobertura que hasta ahora era una subida generalizada, que era lo que planteaba el anterior Equipo de Gobierno, y café para todos. El año pasado nos dijeron que subían un 1% como en Bilbao, sin mayor explicación.

Nosotros no hemos hecho una subida generalizada, algunas cosas han subido un 1%, otros impuestos, tasas y precios públicos han sido congelados, otros, como Durango Kirolak, se sube un 5% y en otros casos, como puede ser

adibidez, igoeraren ehunekoa % 5 baino handiagoa da, baina eurotan ez da igoera handia.

Eta hori guztia kontuan hartuta, uste dugu aldatu dela, Udal honetan Zinegotzi-lanetan daramatzadan 10 urteetan ez baitut inoiz ikusi oposizioko alderdi guztien zuzenketak onartu direnik. Zuen proposamenak entzun egin ditugu, eztabaidatu, adostasunak lortu ditugu eta zuzenketen proposamena nahiko adostasun maila handiarekin ekarrik dugu. Lehen, zuzenketak ez ziren aintzat hartzen, ez zen aintzat hartzen durangarrentzat mesedegarriak izan ote zitezkeen edo ez. Alderdien koloreei begiratzen zitzaien eta kolorearen arabera onartu edo baztertu egiten ziren, baita zuzenketa munduko onena bazen ere.

Beste gai bati helduz, Euskal Sozialistak Durango Kirolaki eta musika-eskolari bakoitzari % 2,5eko igoera aplikatzea proposatu du, igoera partekatzea. Kontua ez da partekatzea, erakunde autonomo bakoitzak bere diru-sarrerak eta bere gastuak ditu, bere zuzeneko eta zeharkako kostuak argi izan behar ditu, zer estaldura-portzentaje duen ere bai. Kontua ez da partekatzea, erakunde autonomo bakoitza autonomoa baita.

Ikusten dugu alderdi soziala eta aipatu dut lehen ere, erakunde autonomo bakoitzarentzako hobarien taula espezifiko bat prestatu dugula eta taula hori egiteko, kontuan izan ditugu familia motak eta horien diru-sarrerak, eta horrekin batera, gainerako erakunde autonomoetan ez dira prezio publikoak igo interes soziala aintzat hartuta, eta kontuan hartuta erakunde autonomo horiek ez dutela Durango Kirolakek bezainbesteko ekarpenik, Durango Kirolakek jasotzen baitu ekarpenik handiena. Bi milioi euro eta erdi ateratzen dira udal honetatik Durango Kirolakentzat eta aplikatzen diren zuzeneko kostuen diru-sarrerekin bakarrik, 1.300.000 euroko sarrera jasotzen da.

Milioi bat eurotik gora finantzatzen ditugu denon artean eta hori ez da beste erakunde autonomo batean ere gertatzen. Aztertzen ari gara zuzeneko eta zeharkako kostuak, pixkanaka, igo beharrekoa igotzeko, prezio publikoak sinplifikatuz.

Obrei lotuta planteatutako hobariari, saltokiek obren eragina jasaten dutenean % 95eko hobaria izateari buruz, hona gure iritzia: Lehen 95ean

en Igualdad y Juventud, se sube más de un 5% en porcentaje, pero en euros no es para tanto.

Y después de todo esto, creemos que sí que ha cambiado porque 10 años que llevo en este Ayuntamiento de Concejal nunca he visto la admisión de enmiendas de todos los partidos de la oposición. Hemos escuchado, hemos debatido, hemos propuesto sobre vuestras propuestas, hemos llegado a acuerdos y hemos traído la propuesta de enmiendas con un consenso bastante alto. Antes no se tenían en cuenta las enmiendas, si podían ser beneficiosas para los durangueses y las duranguesas, simplemente se miraban los colores de los partidos y dependiendo del color te acepto o no te acepto, daba igual que fuera la mejor enmienda del mundo.

Cambiando de tema, los Socialistas Vascos comentaban el tema de repartir entre Durango Kirolak y Musika Eskola un 2,5% de subida. No se trata de repartir, cada organismo autónomo tiene sus ingresos, sus gastos, tiene que tener sus costes directos e indirectos bien claros, cual es el porcentaje de cobertura; no se trata de repartir, cada organismo autónomo es autónomo.

Si vemos la parte social, como indicaba, hay una tabla de bonificaciones específica para cada organismo autónomo que tiene en cuenta los diferentes tipos de familias y los ingresos de las mismas y, al mismo tiempo, en el resto de organismos autónomos no se suben los precios público teniendo en cuenta el interés social, y teniendo en cuenta que esos organismos autónomos no tienen tanta aportación como la que tiene Durango Kirolak ya que es la que más aportación se lleva, dos millones y medio salen desde este ayuntamiento para Durango Kirolak y sólo con el tema de los ingresos de costes directos que se aplican, se ingresan 1.300.000 euros.

Hay más de un millón de euros que financiamos entre todas las personas, eso no se da en ningún organismo autónomo. Se están estudiando los costes directos y los indirectos, para gradualmente ir subiendo lo que haya que subir, simplificando los diferentes precios públicos.

Respecto de la bonificación que se plantea de las obras, que los comercios tengan una bonificación del 95% cuando sufren obras. Anterior-

zegoen eta guk % 50era jaistea proposatu dugu. Nahikoa iruditzen zaigu eta aztertu egin beharko da ea jaisten jarraitu behar den edo ez; izan ere, gerta liteke etxebizitzek nahiz saltokiek, uneren batean, traba txiki batzuk jasatea, baina gero onura handiak jasotzen dituzte.

Bainuontzien ordez dutxak jartzearen gaiari lotuta, ez gatoz bat Eusko Alderdi Jeltzaleak eginiko proposamenarekin, iruditzen baitzaigu hobariek errentaren araberakoak izan behar dutela eta ondo iruditzen zaigu adina 75 urtetik 70era pasatzea, baina betiere, pertsonen errentak aintzat hartuta.

OHZri dagokionez, urteak dira gai honi buruzko eztabaidari ekin geniola, eta gu oposizioan geundenean, bi mozio aurkeztu genituen eta Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Alderdi Sozialistak horien kontra bozkatu zuten. Udal honetan gobernatzen ari zirenean ere ez ziren gai izan balio-txostenari zuzenketak egiteko eta pasatzen utzi zioten.

Foru Aldundian, EAJ eta PSE daude orain gobernuan eta lehen ere hala zeuden. Agian guk baino lotura handiagoa izango duzue aldundikoak mahai batean eserarazi eta balio-txostena aztertzeko, horixe eskatu baita behin eta berriro mozioetan, eta orain arte, ez udal honetako, ez eta Foru Aldundiko EAJk eta PSEk ez digute erantzunik eman, ez eta interes handirik erakutsi ere. Hori dela-eta, adibidez Undatorre kalean, babes-ofizialeko etxebizitzak, etxebizitza berri libreak eta San Faustoko aspaldiko etxebizitzak dauden kalean, OHZ altuena ordaintzen dutenak etxebizitza zaharrak dira. Aldi berean, Ezkurdin, metro koadro bakoitzagatik gutxiago ordaintzen da San Fauston baino; logikoa da, balio-txosten hori gaizki egina dago.

Garraio-planei lotuta EJZri lotutako hobarien gaiari dagokionez, guk mugikortasun jasangarrian sinesten dugu, bai horixe. Gai honetan, bazen lehendik % 30eko hobaria garraio-plan bat egiten duten enpresentzat eta oraingoz, inork ez du hobari hori eskatu. Gure ustez arazoa ez da hobariak igotzea edo jaistea, baizik agian, neurri batzuk hartzeak, langileak enpresetara eramango

mente estaba al 95 y nosotros hemos propuesto rebajarla al 50%, creemos que es suficiente y habrá que estudiar si hay que seguir bajándola o no, puesto que, en un momento dado, pueden sufrir unas pequeñas molestias tanto comercios como viviendas pero después disfrutan de grandes beneficios.

En el tema del cambio de bañeras por duchas, no compartimos la propuesta que ha realizado el Partido Nacionalista Vasco porque entendemos que las bonificaciones sí tienen que ir en base a la renta y sí vemos el bajar de 75 años a 70 pero siempre teniendo en cuenta la renta de las personas.

En cuanto al IBI, años atrás se ha estado debatiendo este tema y nosotros cuando estuvimos en la oposición presentamos dos mociones que fueron votadas en contra por el Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista, ni siquiera cuando gobernaban en este Ayuntamiento fueron capaces de hacer enmiendas a esa ponencia de valores y la dejaron pasar.

Antes y ahora siguen gobernando PNV y PSE en la Diputación, a lo mejor tienen mayor enlace que nosotros con la Diputación y pueden hacerles sentarse en una mesa y estudiar la ponencia de valores, que es lo que se ha reiterado en repetidas ocasiones en esas mociones que decíamos y que hasta ahora ni por el PNV ni el PSE de este Ayuntamiento o de la Diputación hemos tenido mayor respuesta ni interés. Esto nos supone que en la misma calle, por ejemplo en la calle Undatorre donde hay vivienda VPO, donde hay vivienda libre nueva y donde hay vivienda de toda la vida de San Fausto, la que más paga el IBI es la vivienda vieja. Al mismo tiempo en Ezkurdi el metro cuadrado paga menos que en San Fausto; como es lógico está mal hecha esa ponencia de valores.

Sobre el tema de bonificación en el IAE para planes de transporte, nosotros claro que creemos en la movilidad sostenible. En este tema ya existía un 30% de bonificación para aquellas empresas que establezcan un plan de transporte, a día de hoy ninguna ha solicitado esta bonificación. No creemos que el problema sea incrementar o bajar la bonificación sino que, quizás que el implementar algunas medidas como puede ser poner un autobús para recoger a las trabajadoras y

dituen autobus bat jartzea kasu, garestiago ateratzea hemen murriztuko dena baino.

Bidegorriei dagokienez, Foru Aldundia Zornotzatik Durangora bidegorri bat egitea ari da planteatzen, baina interesgarria litzateke Durangotik Elorriora ere bidegorri bat egitea eta hori lehendik planteatuta zegoen Mankomunitatean.

Izan ditugun eztabaidetan oinarrituta, zenbait hobekuntza proposatu ditugu. Adibidez, euskaltegiaren gaian, orain arte ez zeuden hobariak sartzeko proposatu zen. Orain arte modu alegalean aplikatu dira, ordenantza fiskaletan sartu gabe. Hori guztia arautzeko, 2020ko ikasturteko matrikuletan ezarrita egongo dira hobariak. Eta hobariak ordenantza fiskaletan txertatuta ez zeudenez, kontu-hartzaileak erreferentzia bat egin beharko dio gai horri urteko txostenean, jada jasoko ez den diru-sarrera horregatik.

Amaitzeko, argibide teknikoa bizikidetza-unitateari lotutako hobariak aplikatzeari buruz. Argibide tekniko hori txertatu dugu herritarrei garbiago azaltzeko zer den bizikidetza-unitatea hobariak jasotzeari dagokionez.

* **Ruiz Perez andreak (ES-SV)**: Zuzenketa asko onartu zaizkigu, baina uste dut Gobernu-Taldearen eta oposizioaren borondateari esker izan dela hori. Uste dut denok saiatu garela adostasuna lortzen.

Durango Kirolaki dagokionez, ez daukat zalantzarik bera dela aurrekonturik handiena duen erakunde autonomoa. Tasekin % 36 jasotzen dute, Astarloak % 5, Euskaltegiak % 12, baina ez dezagun ahaztu, Durango Kirolakek 10.000 erabiltzaile baino gehiago ditu eta horregatik uste dugu % 5 hori ez dela bidezkoa kirol sustatzen duen horretan.

* **Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV)**: Pena pixka bat ematen dit ikusteak Gobernu-Talde honi, beti atzera begiratzea gustatzen zaiola; izan ere, gobernuan egotea erabakiak hartzeko eta kudeaketa-lanak egiteko izaten da.

trabajadores para ir a las empresas les salga más caro que lo que se vaya a reducir aquí.

En cuanto a los bidegorris, la Diputación está planteando uno desde Zornotza a Durango, pero también sería interesante que se haga un bidegorri desde Durango hacia Elorrio que ya estaba planteado en la Mancomunidad.

En función de los debates que hemos tenido hemos propuesto unas mejoras. Por ejemplo, en el tema del Euskaltegi, se proponía introducir las bonificaciones que hasta ahora no estaban introducidas; se han venido aplicando alegalmente, se han venido aplicando bonificaciones sin estar introducidas en las ordenanzas fiscales. Para regularizar todo esto, en las matrículas del curso 2020 estarán establecidas las bonificaciones. Y porque no estaban metidas las bonificaciones en las ordenanzas fiscales, el Interventor tendrá que hacer en su informe anual una referencia a ese tema por ese dinero que se ha dejado de ingresar.

Finalmente, la introducción de la aclaración técnica sobre la aplicación de las bonificaciones en lo que se considera la unidad convivencial. Hemos introducido esa aclaración técnica para que sea más claro para la ciudadanía qué se considera unidad convivencial a la hora de las bonificaciones.

* Concejala **Sra. Ruiz Perez (ES-SV)**: Se nos han aceptado muchas enmiendas, pero creo que ha sido voluntad tanto del Equipo de Gobierno como por parte de la oposición. Creo que todos hemos puesto de nuestra parte para llegar a un consenso.

Respecto a Durango Kirolak, no tengo ninguna duda que es el organismo autónomo que se lleva el mayor presupuesto; ellos, con las tasas, recaudan un 36%, Astarloa 5%, el Euskaltegi 12%; pero que no se nos olvide que Durango Kirolak tiene más de 10.000 usuarios, por eso creemos que el 5% ese no lo vemos justo en algo que fomenta el deporte.

* Concejala **Sra. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)**: Me da un poco de pena ver cómo este Equipo de Gobierno le gusta mirar siempre hacia atrás, porque cuando se está gobernando se gobierna para decidir, gestionar. Creo que los

Uste dut durangarrek merezi dutela aurrera begiratzeko ahalegina, erabakiak hartzeko ahalegina, batzuetan garrantzitsuak eta ausartak izango diren erabakiak hartzeko ahalegina.

OHZri lotutako balio-txostenari dagokionez, bere garaian adostasuna lortu genuen Foru Aldundiari txostena berrikus zezala eskatzeko. Orain, gobernu-talde honek berrikuspen hori eskatzeko eta dauden arazoak konpontzeko lan egiteko aukera du.

Hobariak errentaren arabera aplikatzeari begira, ados gaude errentarekiko doitze batzuk ezartzearekin, baina kasu batzuetan, neurriz kanpokoak eta bidegabeak iruditzen zaizkigu doitze horiek; adibidez, adinekoek bainuontziaren ordez dutxa jartzeari lotutakoetan; izan ere, zuzenean eragiten die pertsona horien bizi-kalitateari, edo familia ugariei lotutakoetan. Ondo dago hobariak errentetara doitzea, baina gero, aztertu egin behar da atalaseak zein diren.

Eskertzen dugu Gobernu-Taldeak zuzenketa batzuk onartzeko erakutsi duen jarrera, baina denon artean egin beharko dugu lan aurrera jarraitzeko.

* **Varela Dorrio jaunak (HE-EP-I):** Entzun ditugu Podemosen udal-taldekoak hizketan eta gogora ekarri nahi genuke osoko bilkura honetan eserita dagoen udal taldea Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos Independenteak dela. Hiru aldeekiko begirunez, gustatuko litzaiguke aintzat hartzea aurreko legealdian zegoena gaur egun dugunaren zati dela eta haietaz hitz egin behar badugu, har dezagun kontuan egoera hau.

Gaurko gaiei dagokienez esan dezakegu baietz, datuetan oinarritutako igoerak proposatzen ditugula. Iaz, igoeraren oinarria zen Bilbok egin behar zuela, eta guk igoerak egoera jakinei buruzko datu zehatzetan oinarrituta egiten ditugu; ez dugu dena % 1 igotzen Bilbok hala egingo duelako. Jakina, aldatu egiten da egoera; gobernuan gaude eta oposizioan geundenean eskatzen genuen aplikatzen dugu; hau da, igoerak Durangon jasotako datuetan oinarrituta egotea eta ez Bilbon jasotakoetan. Zentzuzko proposamenak ere

durangueses y duranguesas se merecen el esfuerzo de mirar hacia adelante, de tomar decisiones, y decisiones, a veces, importantes y atrevidas.

En relación a la ponencia de valores del IBI, en su día se alcanzó un acuerdo para solicitar la revisión a la Diputación; ahora, este equipo de gobierno, tiene la ocasión de solicitar esa revisión y de trabajar para que esos desajustes se puedan solucionar.

En cuanto a las bonificaciones en función de la renta, podemos estar de acuerdo en que efectivamente hay que poner unos ajustes respecto a la renta, pero en algunos casos esos ajustes nos parecen desproporcionados e injustos, como por ejemplo, en las personas más mayores para el cambio de la bañera por el plato de ducha, algo que en realidad incide directamente en la calidad de vida de estas personas, o como por ejemplo el caso de las familias numerosas, está bien que se ajuste a la renta pero luego hay que ver cuáles son los umbrales.

Agradecemos el talante del Equipo de Gobierno para aprobar algunas enmiendas, pero tendremos que trabajar entre todos para seguir avanzando.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (HE-EP-I):** Hemos oído como hablaban del grupo municipal Podemos, y nos gustaría recordar que el grupo municipal que está sentado en este pleno es Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos Independienteak. Por respeto a las tres partes, nos gustaría que se tenga en cuenta que lo que había en la anterior legislatura es parte de lo que hay hoy en día y que si se tiene que hablar de ellos se tenga en cuenta esta situación.

En cuanto a los temas que nos traen hoy aquí, podemos decir que sí que proponemos subidas basadas en datos. El año pasado la subida estaba basada en que Bilbao lo iba a hacer, y nosotros hacemos subidas basadas en datos concretos de determinadas situaciones, no subimos un 1% a todo porque Bilbao lo vaya a hacer. Obviamente, claro que cambia la situación; estamos gobernando y aplicamos aquello que solicitábamos cuando éramos oposición, que las subidas se basen en los datos que se recojan en Durango y no en los que se recojan en Bilbao. También se

aipatu dira. Hona arrazoizko proposamenak ekarri dira, eztabaidatu egin dira, batzuk onartu ere bai, besteak adostu, eta besteak ez dira onartu, adibidez, Durango Kirolaken masaje-zerbitzuari eustearena, gainera kostuaren % 50etik beherako prezioarekin. Alderdi Sozialistak nahi zuen bezala zentzuzko proposamenak ekarri behar badira, azal diezagutela zertan den arrazoizkoa Durango Kirolakekin zerikusirik ez duen masaje-zerbitzuari eustea, hain kostu txikiarekin gainera.

Aipatu duzue, baita ere, oraingo Gobernu-Taldeari atzera begiratzea gustatzen zaiola. Guri gustatu egiten zaigu atzera begiratzea, besteak beste, egoera zail batetik gatozelako, aurreko gobernu-taldeek hartu dituzten zenbait erabakik desegokitasun batzuk ekarri dituzte udalera eta horiek zuzentzen saiatzen ari gara eta batez ere, gustatu egiten zaigu atzera begiratzea, aurrera begira jartzen garenean, beste batzuk zeudenean egin zituzten akatsak berriro ez egiteko.

Atzera begiratuta ikusten dugu orduko Gobernu-Taldeari ekartzen genizkion proposamenak, ekarritako ia proposamen guztiak, orduan entzun nahi ez zirenak, ezarri egin direla orain. Horregatik ez dut ulertzen zer zailtasun dagoen arrazoizko proposamenak entzuteko. Oraingoan eztabaidatu egin ditugu eta interesgarriak iruditu zaizkigu eta horregatik txertatu ditugu. Azken lau urteetan, ordenantza hauentzako ekartzen ziren proposamen guztiei, sistematikoki, ezezkoa ematen zitzaien, koloreagatik, eta ez proposamenaren edukiagatik.

Harritu egin gaitu aztertzeko nahiko denbora ez izateagatik egin duzuen kexak; aurreko urteetan izandako denboraren antzekoa izan dugu. Beste gauza bat da esatea ez duzuela daturik izan, ez duzuela informazioa eskuragarri izan... Ez dugu horri buruzko kexarik entzun, agian datuak eta informazioa ematen hasi garelako izango da; kostuei buruzko azterlanak mahai gainean jartzen. Denbora luzea generaman hori eskatzen eta ez zitzaigun inoiz eman, zerbitzuei buruzko informazioa, durangarrentzat zer kostu duten eta zergatik egin behar diren gauzak modu jakin batean, eta ez sistematikoki ezezkoa emanez koloreengatik edo proposamenaren egilearengatik.

habla de propuestas razonables. Aquí se han traído propuestas razonables, se han debatido, algunas se han admitido, otras se han acordado y otras no se han aceptado como, por ejemplo, que se mantenga el servicio de masaje en Durango Kirolak y encima con un precio por debajo del 50% del coste. Si vamos a hablar de propuestas razonables como quería el Partido Socialista, nos podía explicar qué hay de razonable en mantener un servicio de masaje que nada tienen que ver con Durango Kirolak y con un coste tan bajo.

También hablaban de que al actual Equipo de Gobierno le gusta mirar para atrás. A nosotros nos gusta mirar hacia detrás entre otras cosas porque venimos de una situación complicada, venimos de una situación donde anteriores equipos de gobierno han tomado determinadas decisiones que han provocado unos desajustes en este ayuntamiento y que estamos intentando corregir, y, sobre todo, nos gusta mirar hacia detrás para que cuando miremos hacia delante no cometamos los mismos errores que se cometieron cuando estaban otros.

Mirando hacia detrás vemos las propuestas que traíamos al Equipo de Gobierno que había y casi todas o prácticamente todas las propuestas que traíamos y que no se querían escuchar se han implementado. Por eso no entiendo cuáles son las dificultades para escuchar las propuestas razonables. Esta vez se han debatido y nosotros las consideramos interesantes y por eso las hemos incluido; en los últimos cuatro años todas las propuestas que se traían a estas ordenanzas eran sistemáticamente denegadas por el color y no por la propuesta.

Nos sorprende que se quejen de falta de tiempo para analizar, el tiempo es similar al de otros años; otra cosa es que nos digan que no han tenido datos, que no han tenido acceso a la información... No hemos oído quejas a ese respecto, quizás porque hemos empezado a dar datos y a dar información, a poner sobre la mesa cuáles son los estudios sobre los costes, cosa que llevábamos reclamando y jamás se nos había dado, información sobre los servicios, sobre lo que les cuesta a los durangueses y duranguesas y por qué las cosas se tienen que hacer de una determinada manera y no negando sistemáticamente por los colores o por quien propone.

Durango Kirolaken kostuen igoera Bartolome Ertzillarekin partekatzea aipatu duzue, baina batak ez du bestearekin zerikusirik. Durango Kiroleko kostuen igoera Durango Kirolaki buruz eginiko azterlan batean dago oinarrituta; Bartolome Ertzilla aztertzen denean ikusiko dugu zer egin behar den, baina ordura arte, proposamenak datuetan oinarritu gabe egiteak ez du zentzurik.

Baztertu ditugun zuzenketei dagokienez, EAJren zuzenketekin hasita, azaldu genizuen batzordean teknikariaren txosten baten arabera, ezin zela ordenantza fiskalean balio-txostenaren zuzentasuna modu aktiboan sustatzea txertatu. Kontua ez da ez dugula nahi, baizik ezin dela. Testu hori ezin da txertatu, besteak beste, Foru Arauak ez duelako uzten. Gobernu-Talde hau aldaketa egin ahal izateko borrokan ari da, urteak daramatzagu egoera salatzen, lanean ari gara eta hala jarraituko dugu, Bizkaiko Foru Aldundiak –hark egin behar baitu– egin beharrekoa egin dezan; hau da, balio-txostena alda dezan. Guk eskatu egin diezaiokegu, baina BFAk zuzendu behar du egin zuen akatsa eta ez dezagun ahaztu, aurreko Gobernu-Taldeak utzi egin ziola aldundiari akats hori egiten, onartu egin baitzuen balio-txostena.

Garraio-planak egiteagatik hobariak hedatzeko eskaerari dagokionez, teknikarien txostenak nabarmentzen du proposamenak ez duela koherentziarik, baina hori alde batera utzita, gure proposamena harago doa. Eta badago inork eskatu ez duen hobari bat enpresa horientzat. Uste dugu beste eredu bat behar dugula, gure ustez sustatu behar duguna da pertsonek nahi izatea lanera modu jasangarrian joatea. Bidegorrien sare oso bat osatu behar dugu eta sare horrek aukera eman behar dio jendeari lanera gutxien kutsatzen duten moduetan joateko.

Familia batek bainuontziaren ordez dutxa jartzeko hobariak lortzeko gehieneko diru-sarrerak mugatzeko proposamenari dagokionez, aipatu dugu lehen ere. Gure ustez, zehaztu egin behar da zer pertsonari, diru-sarreretan oinarrituta, nola egin behar den legez, zergek eta tasek gaitasun ekonomikoan oinarrituta egon behar baitute.

Se ha hablado de repartir la subida de los costes de Durango Kirolak con Bartolomé Ertzilla, pero es que no tiene nada que ver una cosa con la otra. La subida de costes que se produce en Durango Kirolak está basada en un estudio para Durango Kirolak; cuando se estudie Bartolomé Ertzilla se verá qué se tienen que hacer, hasta entonces, sin basar en datos las propuestas, no tiene sentido.

En cuanto a las enmiendas que han sido rechazadas, por empezar con las del PNV, ya les comentamos en la comisión que había un informe del técnico en el que dice que incluir en la ordenanza fiscal impulsar activamente la corrección de la ponencia de valores, no se podía. No es que no queramos, es que no se puede. Ese texto no se puede incluir entre otras cosas porque la Norma Foral no lo permite. Este Equipo de Gobierno está luchando para que se pueda dar el cambio, llevamos años denunciándolo y estamos trabajando y seguiremos trabajando para que la Diputación Foral de Bizkaia, que es quien tiene que hacerlo, haga lo que tiene que hacer, que es modificar la ponencia de valores. Nosotros se lo podemos solicitar, pero es la DFB quien tiene que corregir este error que cometió y que, no olvidemos, el anterior Equipo de Gobierno permitió porque aprobó esta ponencia de valores.

En cuanto a la solicitud de ampliar las bonificaciones por planes de transporte, el propio informe del personal técnico resalta la falta de coherencia de la propuesta, pero independientemente de esto, nuestra propuesta va más allá. Y existe una bonificación para estas empresas que nadie ha pedido; creemos que el modelo debe de ser otro, creemos que tenemos que incentivar a las personas, que las personas quieran ir a trabajar en modo sostenible. Hay que hacer una red completa de bidegorris que le permita a la gente asistir a su puesto de trabajo por los medios menos contaminantes.

En cuanto a la propuesta de limitar los ingresos máximos por los que una familia pueda acceder a bonificaciones del cambio de bañera por ducha, ya lo hemos comentado; creemos que en esta caso hay que concretar a qué personas, en base a sus ingresos, como se debe de hacer por ley, ya que los impuestos y las tasas tienen que estar

Iruditzen zaigu, hedapena adina murrizteko egin behar dela, eta hobaria pertsona gehiagok jasotzeko.

Bada beste proposamen bat, familia ugariei tasa eta prezio guztietan hobariak jartzekoa. Horri lotuta esan behar dugu, guk familiaz dugun kontzeptua ez dela zuek duzuenaren berdina. Gure familia-kontzeptua gaur egungo errealitatearekin lotuagoa dago eta familia mota berriak biltzen ditu, ez familia ugaria bakarrik. Horregatik gehitu diogu hobari-taula bat, durangar guztiak berdin tratatzen dituena edozein dela ere duten seme-alaba kopurua, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsonen kopuruan oinarrituta.

Euskal Sozialistaren zuzenketei dagokienez, Durango Kirolaken prezioak igo ordez Musika-Eskolarenak igotzeko egin duen proposamenari buruz esan behar dugu proposamenek datuetan egon behar dutela oinarrituta eta kasu honetan, Durango Kirolaki buruzko datuak ditugu.

Ordenantza guztien aldeko botoa emango dugu eta hona ekarritako zuzenketei dagokienez, ez gatoz horiekin bat eta beraz, aurkako botoa emango dugu.

* 2. Alkateordea **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu-Durango)**: Aurrera begiratzeko, begiratu egin behar da lehendik zer erabaki hartu diren, komeni da jakitea erabakiak nork eta nola hartu dituen. Suposatzen dugu ez dugula kontrako bozkarik izango eta horrek pozten gaitu. Eskatzen dugu zuen laguntza, eta horrela izateko guk lan egiten jarraituko dugu eta erabakiak hartuko ditugu eta guztiontzat gobernatuko dugu.

* Alkatea **Garrastatxu Urbaneja andreak (EH Bildu-Durango)**: Bozkatu egingo dugu.

basados en la capacidad económica. Creemos que la ampliación que tenemos que hacer es para reducir la edad y que más personas puedan acceder a esta bonificación.

Hay otra propuesta para bonificaciones de todas las tasas y precios para familias numerosas. En este caso, tenemos que decir que el concepto de familia que tenemos nosotros es diferente al que tienen ustedes, tenemos un concepto de familia más acorde a los tiempos actuales y que recoge los nuevos tipos de familia, no solo los de familia numerosa. Por esto hemos añadido una tabla de bonificaciones que trata por igual a todos los durangueses y duranguesas, independientemente de si tienen tres o más hijos, basada en el número de personas que componen la unidad convivencial.

En cuanto a las enmiendas de los Socialistas Vascos, diré sobre su propuesta de subir los precios de la Escuela de Música en lugar de Durango Kirolak, tenemos que decirle que las propuestas tienen que estar basadas en datos y en este caso los datos que tenemos son de Durango Kirolak.

Votaremos a favor de la totalidad de las ordenanzas, y en cuanto a las enmiendas que se traen aquí, no coincidimos con ellas, por lo que votaremos en contra.

* 2º Tnte. de Alcalde **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu-Durango)**: Para mirar hacia adelante hay que mirar qué decisiones se han tomado anteriormente, conviene saber quién y cómo las ha tomado. Suponemos que no tendremos votos en contra, lo que nos alegra. Solicitamos su colaboración, y nosotros seguiremos trabajando para recibir esa colaboración. Tomaremos decisiones y gobernaremos para todos.

* Alcalde **Sra. Garrastatxu Urbaneja andreak (EH Bildu-Durango)**: Procedemos a la votación.

**Eusko Alderdi Jeltzalea-
Partido Nacionalista Vasco**

**1. zuzenketa**

- Aldeko botoak: ZORTZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.
- Kontrako botoak: HAMAIKA, 7 Euskal Herria Bildu-Durango eta 4 Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.
- Abstentzioak: BI, 2 Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

Beraz, **EZ DA ONARTZEN.**

**4. zuzenketa**

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco eta 2 Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.
- Kontrako botoak: HAMAIKA, 7 Euskal Herria Bildu-Durango eta 4 Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Beraz, **EZ DA ONARTZEN.**

**10. zuzenketa**

- Aldeko botoak: ZORTZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.
- Kontrako botoak: HAMAIKA, 7 Euskal Herria Bildu-Durango eta 4 Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.

**Eusko Alderdi Jeltzalea-
Partido Nacionalista Vasco**

**Enmienda nº 1**

- Votos a favor: OCHO, 8 de Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.
- Votos en contra: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu-Durango y 4 de Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.
- Abstenciones: DOS, 2 de Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos

Quedando, por lo tanto, **RECHAZADA.**

**Enmienda nº 4**

- Votos a favor: DIEZ, 8 de Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco y 2 de Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.
- Votos en contra: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu-Durango y 4 de Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.
- Abstenciones: NINGUNA.

Quedando, por lo tanto, **RECHAZADA.**

**Enmienda nº 10**

- Votos a favor: OCHO, 8 de Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.
- Votos en contra: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu-Durango y 4 de Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.

- Abstentzioak: BI, 2 Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

Beraz, **EZ DA ONARTZEN**.

- Abstenciones: DOS, 2 de Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos

Quedando, por lo tanto, **RECHAZADA**.

**11. zuzenketa**

- Aldeko botoak: ZORTZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.
- Kontrako botoak: HAMAIKA, 7 Euskal Herria Bildu-Durango eta 4 Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.
- Abstentzioak: BI, 2 Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

Beraz, **EZ DA ONARTZEN**.

**Enmienda nº 11**

- Votos a favor: DOS, 2 de Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.
- Votos en contra: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu-Durango y 4 de Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.
- Abstenciones: OCHO, 8 de Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.

Quedando, por lo tanto, **RECHAZADA**.

**Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos**

**Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos**

**5. zuzenketa**

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco eta 2 Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.
- Kontrako botoak: HAMAIKA, 7 Euskal Herria Bildu-Durango eta 4 Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Beraz, **EZ DA ONARTZEN**.

**Enmienda nº 5**

- Votos a favor: DIEZ, 8 de Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco y 2 de Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.
- Votos en contra: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu-Durango y 4 de Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.
- Abstenciones: NINGUNA.

Quedando, por lo tanto, **RECHAZADA**.

**11. zuzenketa**

- Aldeko botoak: BI, 2 Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

**Enmienda nº 11**

- Votos a favor: DOS, 2 de Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

- Kontrako botoak: HAMAIKA, 7 Euskal Herria Bildu-Durango eta 4 Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.

- Abstentzioak: ZORTZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.

Beraz, **EZ DA ONARTZEN.**

- Votos en contra: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu-Durango y 4 de Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.

- Abstenciones: OCHO, 8 de Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.

Quedando, por lo tanto, **RECHAZADA**.

* Alkatea **Garrastatxu Urbaneja andreak (EH Bildu-Durango)**: Orain zuzenketa teknikoa.

* Alcalde **Sra. Garrastatxu Urbaneja andreak (EH Bildu-Durango)**: Ahora, votaremos la corrección técnica.

**Gobernu Taldeak, Bulego Teknikoak eskatuta, proposatutako zuzenketa**

- Aldeko botoak: HAMAIKA, 7 Euskal Herria Bildu-Durango eta 4 Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.

- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.

- Abstentzioak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco eta 2 Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

Beraz, **ONARTUTA** geratzen da.

**Corrección propuesta por el Equipo de Gobierno, a instancia de la Oficina Técnica**

- Votos a favor: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu-Durango y 4 de Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.

- Votos en contra: NINGUNO.

- Abstenciones: DIEZ, 8 de Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco y 2 de Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

Quedando, por lo tanto, **APROBADA**.

* Alkatea **Garrastatxu Urbaneja andreak (EH Bildu-Durango):** Eztabaida eta Udal taldeak aurkeztutako zuzenketetako banan-banakako bozketa eta gero, Alkatetza honek Ordenantza Fiskalen zirriborroaren onespenaren bozketa proposatzen du saio honetan onartutako zuzenketak bertan sartuz:

- Aldeko botoak: HAMAIKA, 7 Euskal Herria Bildu-Durango eta 4 Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.

* Alcalde **Sra. Garrastatxu Urbaneja andreak (EH Bildu-Durango):** Una vez concluidos el debate y la votación individual sobre las enmiendas presentadas por los Grupos, esta Alcaldía propone la votación sobre la aprobación del borrador de las Ordenanzas Fiscales, incorporando las enmiendas aprobadas en esta sesión:

- Votos a favor: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu-Durango y 4 de Herriaren Eskubidea-Elkarrekin Podemos-Independienteak.

- Kontrako botoak: BI, 2 Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

- Abstentzioak: ZORTZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.

Beraz,

UDAL OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, eta toki ogasunen lege arautzailearen testu bateratua onartzen duen, martxoaren 4eko, 2/2004 errege dekretu arauemailearen 17. artikuluak aurreikusten duenaren arabera,

ONARTZEN DU:

Lehenengoa.- **2020. urterako DURANGO UDALAREN ORDENANTZA FISKALAK HASIERA BATEN onartzea**.

Bigarrena.- Espediente **jendaurrean erakustea**, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, "Berria" eta "Correo" egunkarietan eta Udaletxeko Iragarki Taulan iragarkiak jarriz, **HOGEITAMAR (30) EGUN**, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, nahi duenak erreklamazioak aurkeztu ditzan

Jendaurrean erakusteko epea amaitutakoan, behin behineko akordioak behin betiko bihurtuko dira, eta honetarako ez da osoko bilkura egin behar izango.

Hirugarrena.- **2020. urterako ERAKUNDE AUTONOMOAREN PREZIO PUBLIKOAK** onartzea.

Laugarrena.- Akordio honek aipatzen dituen Ordenantza Fiskalak eta Prezio Publikoak, indarrean sartuko dira, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 2020ko urtarrilaren 1ean.

- Votos en contra: DOS, 2 de Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

- Abstenciones: OCHO, 8 de Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría de sus miembros, y siguiendo el trámite previsto en el artículo 17 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de Marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales,

ACUERDA:

Primero.- Aprobar **INICIALMENTE** las **ORDENANZAS FISCALES DEL AYUNTAMIENTO DE DURANGO para el ejercicio 2020.**

Segundo.- Someter dicho expediente a **información pública** mediante Anuncios en el Boletín Oficial de Bizkaia y diarios: "Berria" y "Correo", así como en el Tablón de Anuncios de esta Casa Consistorial, durante el plazo de **TREINTA (30) DÍAS**, a contar del siguiente día al de su publicación en el citado Boletín, al objeto de que se presenten cuantas reclamaciones se estimaren oportunas.

En el supuesto de que no se presentaran reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.

Tercero.- Aprobar los **PRECIOS PÚBLICOS de los Organismos Autónomos para el ejercicio 2020.**

Cuarto.- Las Ordenanzas Fiscales y Precios Públicos a las que el presente Acuerdo se refiere, entrarán en vigor, una vez publicado su texto íntegro en el Boletín Oficial de Bizkaia, el 1 de Enero de 2020.

Hau guztia bat etorriz Toki Ogasunei buruzko, abenduaren 16ko, 9/2005 Foru Arauaren 16 artikuluak eta gainerakoak ezarritakoekin.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los Artículos 16 y siguientes de la Norma Foral 9/2005, de 16 de Diciembre, de Haciendas Locales.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 17:08ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 19:08 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ima Garrastatxu Urbaneja andrea | Iker Urkiza Quilez jauna | Ane Abanzabalegi Areitio andrea | Aritz Bravo Zubillaga jauna |
| Mariam Bilbatua Perez andrea | Juan Antonio Bueno Moreno jauna | Garazi Errasti Silloniz andrea | Julian Rios Santiago jauna |
| Neskutz Rodriguez Ormazabal andrea | Jorge Varela Dorrio jauna | Maria Oñate Ereñaga andrea | Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sara Oceja Salazar andrea | Ager Sardui Azkoaga jauna | Josune Escota Bisbal andrea | Jon Sergio Atxotegi jauna |
| Joana de Irala Bizkarra andrea | Malen Urkullu Arieta-Araunabeña andrea | Ainhoa Ortueta Etxebarria andrea | Jesica Ruiz Perez andrea |
| Fernando Castillo Rodríguez jauna | Ramón Sorarrain Tolosa jauna | Jokin Palacio Perez jauna | |